

Bezeroekiko harremanak

- Nola erakarriko dituzue bezero berriak, eta nola mantendu eta hazi araziko dituzue bezero horiek?

Online zerbitzua izan arren, bezeroarentzako arreta pertsonen artean ezarriko da beti, probintzietako hiriburuetan dauden egoitzetan izan ezik, zeinetan teknologia bidezko laguntza eskaintzen den.

Gehiegizko deiak direla eta bezeroak artatu gabe geratuz gero, deian 2 minutuz gehienez itxaron beharko dute erantzungailu automatiko modernizatu batek bezeroaren kezka argitzen saitzen den bitartean. Zalantza edo kezka argitu ala ez, langile bat libre egon bezain laster, bezeroaren kezka landuko du, laguntza zehatzagoa eskaintzeko asmoz.

Bezeroak telefono bidezko elkarrizketarik behar ez badu, dela minimo bat delako, dela beste edozein arrazoiengatik, txat automatikoa izango du eskuragarri webgunean, eta horrek edozein zalantza argituko du, pastila bat zenbatero hartu behar den, zein produktu dauden salmentan webgunean... deiaren beharrik gabe.

Bezeroei dagokionez, edonor laguntzeko prest gaude, betiere adingabeak heldu baten ardurapean egonik. Bezeroek aseguru pribatu bat eskuratzeko aukera izango dute. Bezeroek aseguru eskuratuz gero, hilero diru-kopuru bat ordaindu beharko dute, honen bitartez, hainbat deskontu eta erraztasun eskainiko dira diagnostikoak egiteko eta gure langileekin harremanetan jartzeko uneetan.